

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2006ko Urtarrilaren 13a

654. zenbakia

EUSKARA/ Berriketan egitasmoaren barruan mahai-ingurua egingo dute eguaztenean

Euskaldun zahar eta berriak elkartzeko gunea

EDU MENDIBIL

Euskaldun zaharrek eta euskaldun berriak elkartzeko gunea jarri dute abian Udaleko Euskara Zerbitzuak, Jardunek, AEK-k eta Udal Euskaltegiak. Berriketan egitasmoa aurkezteko mahai-ingurua izango da eguaztenean kultura etxean, 19:00etan.

Dagoeneko antzeko egitasmoak abian jarri dituzte, besteak beste, Arrasaten, Elgoibarren eta Lazkaon eta bertan parte hartzen ari diren zenbait lagun etorriko dira eguaztenean aurkezpenera. Era berean, euskaltegietan ibili-

tako ikasleei *Berriketan* egitasmoan parte hartzeko gonbidapena bidali diete.

Beste herrietan izan duen arrakastari eutsi nahi diote. Hala esan zuen Iñigo Iñurrategi Euskara batzordeburua: "Erabiltzea da euskara ikasteko modurik onena eta proiektu honen helburua hori da, euskara ikasi eta euren inguruan euskaraz jarduteko aukera gutxi dutenei gune bat eskaintzea. Horretarako euskaraz hitz egiten dutenen laguntza ezinbestekoa izango da".

Hiru hilabetez ekimen honetan parte hartzeko konpromisoa eskatuko zaie partaideei, maiztasun batez biltzeko eta euskaraz

jarduteko. Lagunartean kafetxo bat hartuz, euskarazko antzerki emanaldi bat ikusiz edo mendi irteerak eginez euskaraz jardutea da helburu nagusia.

EZAGUTZA ETA ERABILERA

Egitasmoaren bultzatzaileek azpimarratu zutenenez, euskararen ezagutza eta erabilera ez daude parean: 2001eko azterketa soziolinguistikoaren arabera, herritarren %70ak menperatzen du euskara; erabilera, ostera, %42,2koa zen 2001ean eta %45,4koa iaz. Ezagutzaren portzentajeak gora egitea da helburua. Euskaldun zaharrek eta berriak berriketan jarriko dituzte horretarako.



Berriketan egitasmoaren berri eman zuten martitzenean, prentsaurrekoan.

E.M.



San Anton jaiak Murinondon

San Anton jaiak ospatuko dira asteburuan. Bihar, zapatua, mus txapelketa jokatu da Zubiberrin, 16:00etan. Domekan, meza nagusia izango da 11:00etan, herri krosa jokatu da eguerdian eta jarraian herri kirolak, dantzak eta jokoak izango dira. Martitzenean, San Anton egunean, meza nagusia izango da San Antonabateko ermitan, 11:00etan. Ondoren, salda eta txorizoa joaten direnendako.

LABUR

Txapa Irratiaren aldeko jaialdian, hiru musika taldek joko dute bihar gaztetxean

Bihar, zapatua, Txapa jaiak izango da gaztetxean, gaez. Nuevo Catecismo Catolico, Sarri's R'N'R Trio eta The Fucked Frikis taldeek joko dute 22:30ean hasita eta ondoren Mansilla DJa arituko da.

Cespa garbiketa enpresakoek Errege egunean grebarik ez zutela egin argitu nahi dute

Urtarrilaren 1ean eta Errege egunean grebarik ez zutela egin argitu dute Cespa enpresakoek. Lan Hitzarmena negoziatzen ari dira eta Probintzia Hitzarmenari eutsi nahi diote, lan orduen murrizketa lortzeko eta zapatu gehiagotan jai izateko. Orain arte txandaka egin dute lan zikin asko pilatzen den egun berezietan, euren hitzarmenean domeka eta jaiegunetan jai izan arren.



**Ezkontzak
Jaunartzeak
Erreportajeak
Estudioa**

ALBUM DIGITALAK, ANALOGIKOAK, FAMILIA ALBUMAK,
ZAHARBERRITZEAK, KOPIAK ETA HANDITZEAK, FOTO-MONTAIK
ZUHAITZ GENEALOGIKOAK, ARGAZKI ERREPRODUKZIOA,
LABORATEGI PROFESIONALAREN ZERBITZU ETA ERREBELATZAK

Beste estila bat
www.urkan.com
Ozaeta 1 943 76 30 33 .Bergara
urkan@urkan.com

GIZARTEA/ Udaletxean eta herriko hainbat dendatan azukrea, atun latak eta konpresak jasotzen dihardute

Sahararen alde elikagaiak batzeko kanpaina datorren astean amaituko da

EDU MENDIBIL

Hurrengo astean amaituko da Sahararen aldeko elikagaiak batzeko kanpaina. Azken urteotan bezala, azukrea, atun latak eta konpresak batuko dituzte NOIZ arte eta NON??? Kanpainaren bultzatzaileak pozik dira orain arte jasotako erantzunarekin.

Sahararen subiranotasunaren aldeko Bubisher elkartearen abenduan sortu zuten Bergaran. Bubisher izan da elikagaiak batzeko kanpainaz arduratu dena. Hurrengo astean amaituko dute elikagaien batzearekin. Esan bezala, azukrea, atun latak eta konpresak batzea da helburua. Interesatuek herriko hainbat dendatarara edo udaletxera jo dezakete materiala uztera. Elkarteko arduradunen arabera, kanpaina ondo doa: "Iazko antzera, erantzun ona jaso dugu orain arte. Eskoletan hilaren 21era arte iraungo du kanpainak eta hilaren 23an materiala enbalatzen hasiko gara".

Dirulaguntza eman nahi dute nendako Kutxan eta Euskadiko Kutxan kontuak ireki dituzte.

EKITALDIAK URTEAN ZEHAR

Elikagaiak batzeko kanpainaz gain, urtean zehar Sahararen gai-

neko beste hainbat ekitaldi egingo dituzte Bubisher elkarteok. Hain zuzen ere, Saharako egoerarekiko sentsibilizazioa pizte

izango da helburua. Era berean, uda partean, Saharako umeak Euskal Herrian jasotzeko kanpainan hartuko dute parte.

Hogei bat lagun ari dira Bubisher elkartearen. Elsa Manso da elkarteko presidentea. Hurrengo bilera urtarrilaren 31n egin-

go dute kultura etxean, 20:00etan. Elkartearen parte hartu nahi dutenei bilerara joateko deia egiten diete.

GARAZI HACH EMBARAK/SAHARAR EUSKALDUNA

"Zatitutako, banatutako herrialdea gara oraindik"

E.M.

Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan jaioa, Garazi (27 urte) 13 urterekin etorri zen Ormaiztegi bizitzera, ama hangoa du eta. Bubisherren eskutik, Bergarako ikasleei Saharako egoera hurbiltzen aritu da Garazi.

Ez da erraza gertatuko gatzetxoei hango egoera azaltzea.

Zaila da beraiek errealitate hori imajinatzea. 12 urtera arteko ipuinekin, hennarekin egindako marrazkiekin edo gure tradizioen kontaketaekin hango gauzak gerturatzean saiatsen naiz. Batxilergoekin gure egoeraren berri ematea da helburua.

Nolakoa da sahararren egoera gaur?

Zatitutako, banatutako herrialde bat gara. Oraindik ez naiz sekula egon mendebaldeko Saharan; han diren sahararrek Marokokoren gobernua ren menpe bizi dira eta jipoiak eta bortxaketak eguneroko gauza dira. Marokok ez du onartzen sahararren auzia konpontzeko erreferenduma egiterik. Tinduf inguruko errefuxiatuen kanpamenduetan egoera lasaigoa da gure gobernua dugulako, baina behar asko dago.

Eta nazioarteko laguntza murrizten doa...

Bai, Acnur laguntza murrizten hasi da eta horregatik dira hain garrantzitsuak elikagaiak batzeko kanpaina hauek.



Garazi Hach Embarak Aranzadi Ikastolako ikasleekin izan zen martitzenean.

SMS bidezko amodiozko mezuen lehiaketa, domekara arte zabalik

E.M.

Domekara arte izango da zabalik Jardun elkarteak antolatutako SMS bidezko amodiozko gutunen lehiaketa. Bestalde, 108 gutun jaso dituzte lehiaketaren 14. ekitaldian. Ohi bezala, saridunak otsailaren 14an egingo den ekitaldian emango dituzte jakitera.

Urtarrilaren 5ean amaitu zen gutunak jasotzeko epea eta 108 gutun jaso dituzte aurten, horietatik lau Bergarakoak. Esan bezala, Jardun euskara elkarteak antolatutako lehiaketak 14. ekitaldia beteko du aurten. Dagoeneko 2.000 gutunetik gora jaso dituzte ekitaldi horietan guztietan.

Epaimahaia Julen Gabiria idazleak, Alaitz Sarasola iazko irabazleak, Yolanda Arrieta idazleak eta Alex Sardui Gatibu taldeko abeslariak osatuko dute aurten. Sari banaketa ekitaldia otsailaren 14an egingo da, kultura etxean, 19:00etan.



SMS bidezko mezuen lehiaketako irabazlearentzat 90 euroko saria egongo da.

AMODIOZKO MEZUAK

SMS bidezko amodiozko gutunen lehiaketan parte hartu nahi dutenek 605 71 24 69 telefono zenba-

kira bidali ditzakete mezuok, domekara bitartean. Sari bakarra izango da: irabazleak 90 euro eskuratuko ditu.

LABUR

Haur masaje ikastaroa eta zigorren alternatibak aztergai, Aranzadiren eskutik

Aranzadi Ikastolak bi ikastaro iragarri ditu: alde batetik 0-1 urte bitarteko gurasoei zuzendutako haur masaje ikastaroa izango da urtarrilaren 16tik otsailaren 20ra bitartean, astelehenean, 17:00etatik 19:00etara. Nerea Mendizabal izango da irakaslea eta ikastaroaren prezioa 85 eurokoa da.

Bestalde, Zigorren aurrean beste aukera batzuk ikastaroa egingo da otsailaren 22an. Izenematea eta argibideak Aranzadi Ikastolan, 943 76 90 71 telefono zenbakian.

Zinema aretoa aldarrikatzeko balkoietan jartzeko pankartak salgai zapatuan

Zinema aretoaren alde sortutako herri plataformak balkoietan jartzeko pankartak salgai jarriko ditu bihar, zapatua. Plataformak Oxirondoko azokan izango dira 10:30etik aurrera eta Domingo Irala kalean 12:30etik aurrera. *Zinea orain* lelopean, pankartak 3 euroren truke salduko dituzte.

Joan den martxoan Novedades aretoa itxi zutenean sortu zuten zinema aretoaren aldeko herri plataforma. Hurrengo bilera egunean, hilaren 19an, egingo dute kultura etxean, 19:30ean. Gaiarekin interesatutako guztiei parte hartzeko dei egiten diete.

Etxeberría erloju dendak Gabonetan egindako zozketan 685 zenbakia izan da saritua

Etxeberría erloju dendak bere bezeroen artean Gabonetan egindako zozketan 685 izan da saritutako zenbakia. Urtarrilaren 10eko ONCEko zozketarekin batera egin zuten zozketa. Saritutako txarretelaren jabeak 1.500 euroko erosketa bonoa jasoko du.



MIGUEL ALTUNA

Abenduan Miguel Altuna ikastetxean egindako odol ateratzean 47 lagunek hartu zuten parte.

GIZARTEA/ 2005ean 1.399 odol ateratze egin ziren Bergaran; 87 odol emaile berri

Odol ateratzeen kopurua 1.500era hurbiltzea helburu

EDU MENDIBIL
Bergarako Odol Emaileen Elkarteak pozik azaldu da iaz lortutako emaitzekin. 1.399 odol ateratze egin ziren Bergaran eta 87 lagunek eman zuten odola lehen aldiz. 2006 urterako helburua zera da: odol ateratzeen kopurua 1.500 ingurukoa izatea.

Azken urteotako emaitzei erreparatuz gero, 2001ean izan ziren odol ateratze gehien Bergaran: 1.513. Orduetik kopuruak zertxobait egin du behera: 1.435 odol ateratze 2002an, 1.373 zenbatu zituzten 2003an eta 1.481 2004an. Orain, esan bezala, odol ateratzeen kopurua berriro 1.500 ingurukoa izatea da helburua. Fernando Idigoras Bergarako Odol Emaileen Elkartearen presidentea zera adierazi digu: "Deia-

ren zain ez egoteko, deitzen ez badiegu ere, etortzeko eskatu nahi diegu emaileei. Urtean zehar odola bi aldiz ematen dutenak hirugarren emanaldia egiteko gertu egongo balira... Edozein modutan, pozik gaude lortutako emaitzekin. Bergaran 1.399 odol ateratze egin genituen eta kopuru horri Bergaratik kanpo odola ematen duten herritarren ekarpena gehitu behar zaio. Izan ere, lanagatik edo ikasketengatik odola kanpoan ematen duen jende dezente dago".

ODOL EMAILE GAZTEAK
Odol emaile berrien artean gazte jendea izan da nagusi 2005ean. 87 lagunek eman zuten odola lehen aldiz Bergaran eta horietatik 43 lagun 18-25 urte bitartekoak dira.

Gazte jendearengana hurbiltzeko asmoz, Ikaslan elkarte-

arekin konpromisoa hartu du Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak. Ikastetxeetan 18 urtetik gorako odol emaile berriak lortzea da helburu nagusia. Bergaran, Miguel Altuna ikastetxean, 47 lagunek eman zuten odola joan den abenduan egindako saioan. Dagoeneko bigarren urtez egin dute odol ateratzea Miguel Altunaren.

ODOL ATERATZEA EGUAZTENEAN
Hurrengo odol ateratzea eguaztenean, hilaren 18an, egingo dute Seminarioko lokalean. Ohi bezala, 18:30ean hasiko dira odol ateratzearekin. Herriko odol emaileei parte hartzeko deia egiten dute. Zera gogoratu nahi dute: gizonek urtean lau aldiz eta emakumeek hiru aldiz eman dezaketela odola. Guztira, 1.419 odol emaile dira Bergaran, horietatik 850 inguru aktiboak direnak.

LABUR

Udaleko Euskara Zerbitzuak kaleratutako egutegia Udaltzaingoa eskura daiteke

Udaleko Euskara Zerbitzuak kaleratutako egutegia etxetik etxera banatu dute. Hala ere, norbaitek egutegia jaso ez badu, Udaltzaingora jo dezake beratu eskuratzeko. Herrian ateratako hainbat argazki-rekin apaindutako egutegi ederra atera du Euskara Zerbitzuak.

1956an jaiotakoek 50. urteurrena ospatzeko afaria egingo dute urtarrilaren 21ean

1956an jaiotakoek afaria izango da urtarrilaren 21ean, Zabala jatetxean. Afariaren aurretik Frontoian elkartuko dira, 19:30ean. Afa-lostea Iturengo Modestok alaituko du. Izenematea Zabalan (943 76 20 07), urtarrilaren 14ra arte.

Bai Euskal Herriari ekimenak antolatutako marisko jana, Aurea Mugartzarentzat

Bergarako Bai Euskal Herriari ekimenak abenduaren 31n zozketatutako marisko jana 1.105 zenbakiari egokitu zitzaion. Aurea Mugartzak eskuratu zuen saria. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete zozketan parte hartu zuten guztiei.

Euskal presoek aldeko zozketan parte hartzeko txartelak jarri dituzte salgai

Euskal presoek aldeko txartelak salgai daude ohiko tokietan, 3 euroren truke. Txartelak hilabete osorako baliagarriak dira: egunero 30 euro zozketatzen dira eta egubakoitzetan, 60 euro. Hileroko sari berezia, berriz, 300 eurokoa da.

1981ean eta 1984an jaiotako bergararrek bazkaria egingo dute bihar, zapatua

1981ean jaiotakoek bazkaria egingo dute bihar, urtarrilak 14. Pol-Pol tabernan elkartuko dira, 12:00etan.

1984an jaiotakoek ere lagunarteko bazkaria egingo dute zapatuan. Antolatzaileek aditzera eman dutenez, eguerdian elkartuko dira Pol-Polen, 12:30ean.

Interneten ibiltzen ikasteko ikastaroak KZgunean, urtarrilaren 23tik otsailaren 3ra

Internet hasiera ikastaroa izango da Irizar jauregiko KZgunean urtarrilaren 23tik otsailaren 3ra: 11:00etatik 13:00etara edo 16:00etatik 18:00etara. Argibideak Irizar jauregiko lehen pisuan edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

Bergara Kirol Elkarteak, Batzokiko eta Hernandez ardandegiko zozketen emaitzak

Bergara KEk Gabonetan egindako zozketan hauek izan dira zenbaki sarituak: 32.365 (saskia), 32.210 (astebeteko egonaldia Kantabrian) eta 6.613 (musika ekipoa). Batzokiko zozketan 1.123 zenbakiarentzat izan da saria (bi lagunendako aste bukaera bateko egonaldia Donostian). Bestalde, Iñaki Iñarra Mendik eskuratu zuen Hernandez ardandegiko saskia, han ziren bi kalabazen pisua asmatzeagatik. Kalabazok 113,325 kg-ko pisua zeukatzen.

POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

KIROLDEGIA/ Astelehenetik aurrera 2006ko txartela erabili beharko da; Bergarako kirol txartela irailaren 15era arte erabilgarria izango da

Aurtengo kirol txartela berritzeko kanpainarekin hasi da Kirol Zerbitzua

E.M.

Astelehenetik aurrera 2006ko kirol txartela erabili beharko da kirol instalazioetan. Azken urteotan bezala, Debagoieneko edo Bergarako kirol txartela eskuratzeko aukera izango da. Herrikoa irailaren 15era arte izango da baliagarria.

Udaleko Kirol Zerbitzuak adierazitakoaren arabera, irailaren 16an inauguratuko dute igerileku berria. Gauzak horrela, Bergarako txartela eskuratu gero, ordura arte erabili ahal izango da txartela, handik aurrera tarifa eguneratu beharko da-eta.

Begarako kirol txartelaren kasuan hauek dira aurtengo prezioak: 47,10 euro 18 urtetik beharagoendako, ikasleendako eta langabetuendako eta 71 euro nagusiendako. Erretiratuenda-


ko zein elbarriendako prezio bereziak izango dira eta familiako txartela eskuratzeko aukera dago baita.

MANKOMUNITATEKO TXARTELA

Debagoieneko kirol txartela urte osorako izango da: 1983tik 2001era bitartean jaiotakoendako tarifa 86,80 euro izango da; 1982an edo aurretik jaiotakoendako, 124,65 euro. Familiakoa ere atera daiten. Txartela Debagoieneko herri guztietan erabiltzeko aukera izango da.

Edozein argibidetarako Udaleko Kirol Zerbitzura jo dezakezue, 943 77 91 67 telefono zenbakira. Esan bezala, urtarrilaren 15etik txartel berria eskatuko dute instalazioetan.

Igerilekuaren ordutegia honako hau da: aste barruan 07:00etatik 21:00etara eta zapatuetan eta domeketan 09:00etatik 19:00etara.



Astelehenetik aurrera 2006ko txartela eskatu dute herriko zein Debagoieneko kirol instalazioetan.



Lokatzako bizikleta, Antzuolara

Luis Mari Etxezarreta antzuolarrak eskuratu du Lokatzak Gabonetan zozketatutako bizikleta. 85 zenbakiari egokitu zitzaion lehen saria. Bigarren saria (bi lagunendako afaria Zumelaga jatetxean) 8.150 zenbakiarendako izan da. Txartelaren jabea azaltzeko dago oraindik. Irrintzi tabernan saldu zuten txartela. Argazkian, Peio Garitano Lokatzako ordezkaria, Jesus Martin 12 dendakoa eta Etxezarreta.

Eskubaloiko talde guztiek etxean jokatu dute aste bukaeran

E.M.

Begarako eskubaloiko taldeek etxean jokatu dute oraingo aste bukaeran. Zapatuan eta domekan bost partiduko jokatu dira Labegarrietako kiroldegian. Gazte mailako mutilen taldeak partiduko erabakigarria izango du bihar arratsaldean.

Bergara eta Zarautz gazte mailako mutilen taldeak sailkapeneko goialdean daude eta aurrez aurre izango dira bihar, 18:00etan. Aurretik nesken txanda izango da: bergararrek Legazpi hartuko dute, 16:15ean hasita.

Zapatu goizean, infantil mailan, Mariaren Lagundiko mutilkoek Pulpo B taldearen aurka jokatu dute. Partidua 12:15ean hasiko da.



Gazte mailako mutilek Zarautz hartuko dute zapatu arratsaldean.

BESTE BI PARTIDU DOMEKAN

Domeka goizean beste bi partiduko jokatu dira: lehenbizi, infantil mailako Aranzadiko taldeak

Araorazaren aurka jokatu du, 10:30ean. Senior mailako mutilen taldeak Leitzaran hartuko du jarraian, 12:15ean.

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIKÁ FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA


KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

GOIERRI

AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

PILOTA/ Izenematea astelehenera arte, irailaren 5era arte, izango da zabalik

Gabon Saria: hamaika txapeldun eta pilota harrobi bikaina


E.M.

Herri mailako txapelketarik arrakastatsuenetakoa bilakatu da pilotako Gabon Saria azken urteotan. Urte bukaeran jokatutako finalekin amaitu zen txapelketa. Hamaika txapeldun gain, partaide guztiek maila bikaina erakutsi dute azken hilabeteotan.

Benjamin mailatik hasi eta nagusien mailara bitarteko ehun bat lagunek hartu dute parte aurtengo Gabon Sariko txapelketan. Azken urteotan bezala, txapelketa guztiz arrakastatsua izan da, partaidetzari zein antolaketari dagokionez. Ikusleek ere erantzun bikaina eman diote eta pilotazale dezente izan zen Udal Pilotalekuan jokatutako finaletan eta aurretiko jardun aldietan. Pilotako harrobia bultzatzeko ahaleginak guztion babesa izan du.

'BARRU' JOKOAN

Ohikoa denez, finalen aurretik barru jokoan aritu ziren pilotariak eta hauek izan genituen irazleak, maila guztietan: Asier Jorge, Andoni Bretaña, Iker Ruiz de Larramendi, Xabi Albizu, Paul Valgañon, Xabi Berasategi, Aitzol Gutierrez, Andoni Fernandez, Mikel Urrutia, Aitor Osa eta Eneko Muguruza.



Gabon Sariko finaletan saritutakoak Reyes Azkoitiarekin, Iker Muruamendiarazekin eta Jokin Etxanizekin.

INIGO ZAITEGI

Benjamin eta senior maila bitarteko ehun bat lagun izan dira lehian

HAMAIKA TXAPELDUN

Finalen emaitzak, berriz, hauek izan genituen: Josu Berasategi 16, Mikel Najera 15; Unai Zubizarreta 16, Eneko Larrañaga 4; Eukene Azpeitia 16, Josu Zezeaga 5; Pello Etxaniz 16, Iker Hiriart 4; Ander Errasti 18, Andoni Najera 12; Julen Jorge 18, Asier Taboa-

da 15; Mikel Gallastegi 18, Jokin Etxabe 13; Beñat Rezusta 18, Iñaki Diez 3; Jon Perez 18, Aritz Rezusta 17; Oier Aldai 18, Ibon Berraondo 11 eta Igor Gutierrez 22, Ander Muguruza 18. Finalen ostean egindako sari banaketan Jokin Etxanizek eta Iker Muruamendiarazek hartu zuten parte.

LABUR

Txirrindularitza lizentziak berritzeko aukera

Lokatza Ziklismo Eskolak txirrinduzaleei aditzera ematen die aurtengo denboraldirako lizentziak berritzeko epea zabalik dagoela. Interesatuak Lokatzak San Martin plazan duen bulegora jo dezakete, eguenetan, 20:00etatik 21:00etara bitartean.

Antxintxika triatloi taldea, denboraldi berrirako gertu

Aurtengo denboraldian Antxintxika triatloi taldean parte hartu nahi dutenek (neska zein mutil) ondoko tel. zenb. ra deitu dezakete: 660 52 95 16. Debagoieneko Antxintxika taldekoak laster hasiko dira hurrengo denboraldia prestatzen.

PARTIDUAK

DOMEKAN, BARRUAN

16:00: Pirulotarrak-Agirrebe. Irubide
17:00: A Ze Flaxa-Irubide. Paco C.
18:00: Paco Cia-Fiat. Belengua
19:00: Teatekh-Belengua. Iris Pub
20:00: Irish Pub-Komando. Teatekh

DOMEKAN, KANPOAN

16:00: Errotagain-Niu Tim. Santana
17:00: Santana-Txakurra. Kalaveras
18:00: Kalaveras-Makanaki. Txakurra

Kadete, infantil eta gazte mailetako partiduak Ipintzan


E.M.

Bihar, zapatua, hiru futbol partidu jokatuko dira Ipintzan: goizean, infantil mailako taldeak Lazkao hartuko du, 10:00etan; ondoren, ohorezko kadete mailako taldeak Añorgaren aurka jokatuko du, 11:30ean. Bergarak Azpeitian galdu zuen joan den zapatuan Lagun Onak taldearen aurka, 2-0. Javi Oregiren eta Karlos Gorrotxategiren taldeak ez

du lan erreza izango bihar: donostiarrek ez dute oraindik partidurik galdu. Bergarakoak sailkapenaren erdialdean dira. Lehen itzulerako azken partidua da biharkoa.

BERGARA-SPORTING HERRERA

Arratsaldean, lehen gazte mailan, Bergara eta Sporting Herrera taldeak izango dira aurrez aurre, 16:30ean. Bergarak Intxurreri irabazi zion zapatuan, 1-3.



Bergara KEko lehen gazte mailako aurtengo taldea.

BERRIGARA

Eskiatzera lehen irteera egingo du Pol-Polek hurrengo asteburuan

Pol-Pol Mendizale Elkarte eski sailak lehenbiziko irteera iragarri du hurrengo aste bukaerarako: urtarrilaren 20tik 22ra Baqueirara joango dira. Otsailean ere Baqueirara joango dira, hilaren 17tik 19ra bitarteko aste bukaeran hain zuzen. Eski denboraldiarekin jarraituz, martxoan bi irteera izango dira: hilaren 3tik 5era Baqueirara eta hilaren 24tik 26ra Formigalera. Azkenik, Aste Santuan, Alpeetara ohiko irteera egingo dute, Tignesera, apirilaren 14tik 22ra. Izenematea Pol-Poleko bulegoan: astelehenetik eguenera, 19:00etatik 20:30era. Edozein argibidetarako 943 76 48 51 telefonora jo dezakezue.

MUSIKA/ *Seussen mundua* musikalaren estreinaldiak 5.000 ikusle inguru bildu zituen Bilboko Euskaldunan

Orfeoiak sekulako arrakasta izan du 'Seussen mundua' musikalarekin

IRATI AGIRREAZALDEGI

Gabonetako oporretan estreinatu du Bergarako Orfeoiak *Seussen mundua* musikalak Bilboko Euskalduna jauregian. Artistak eurak oso pozik geratu dira egindako lanarekin eta lortutako arrakastarekin; eta musika adituek ere zoragarritzat jo dute lana.

Denbora luzea kendu eta neke handia lapurtu dizkien lanak ikusi du argia. *Seussen mundua* ikuskizunak, alegia. Bergarako Orfeoiaren eskutik iritsi zen Gabonetan Bilboko Euskalduna jauregira.


Bost mila lagunetik gora izan dira ikuskizunaz gozatzeraz joandakoak. Musika-zaleak eta kazetariak, denak bat etorri dira ikuskizuna zoragarria izan zela esatean. Euskal Herriko egunkari gehienek egin dute ikuskizunaren aipamena euren orrietan.

Guk horietako batzuk jarri dizkizuegu adibide modura. Bestalde, Natxo de Felipe Oskorriko abeslariak ere zorionak eman zizkien Orfeoiko lagunei.

Artistak eurak ere oso pozik daude lortutako arrakasta ikusita. Valen Moñux zuzendari artistikoak esan digunez, "estreinaldia bikaina izan zen. Soinu mahaiarekin egun batean arazak izan genituen arren, oro har gustura jardun dugu Euskaldunan. Jendeak sorpresa handia hartu du lan honekin, eta horregu ere poztu gaitu".

BERGARAN, NOIZ?

Orain, ikuskizuna Euskal Herriko beste leku batzuetara eramateko asmoa dute. Valen Moñuxek esan digu euren ilusioa dela Bergaran egitea. "Alkatearen hitza daukagu musikalak herrian erakutsi ahal izateko. Noiz izango den ez dakigu, baina seguru aski frontoian izango da".



Euskal Herriko beste hainbat tokitan *Seussen mundua* erakusteko asmoa dauka Orfeoiak.

Ikuskizuna, kazetarien esanetan

Labur eta hitz gutxitan esateko: *Seussen mundua* ikuskizun zoragarria

Bergarako Orfeoiak Bilboko Euskalduna jauregian aurkeztutako ikuskizuna erabat zoragarria izan zen, txapela kentzeko modukoa.

Ohituta geunden abesbatza honen lan bikainetara. *Seussen mundua*-k sekulako kalitatea erakutsi du. Elementu guzti-guztiek bikain nota merezi dute. Pena, ordea, ikuskizuna elebiduna ez izatea. Hala balitz ikusle gehiago izango lituzke dudarik gabe.

Bi ordu iraun zuen ikuskizunak, baina horrek ez zuen axola izan. Izan ere, txikienak adi-adi egon ziren eszenatokian gertatzen zenari begira; bai eszenaratze ikusgarriarengatik: kolorea, jantziak eta argia; baita testuen arintasunarengatik ere.

(...) Izan ziren bi une aipamen berezia merezi dutenak: Potol elefantearen jaiotza eta azken agurrak. Artistek euren poza ikusleekin partekatu zuten kantuan. Hitz bitan laburtzeko: ikuskizun zoragarria.

EMECE / 'El Diario Vasco'

"Itzela da muntaia, erakargarria da musika eta ikusgarria da ikusteko ere"

(...) Bete egin zen Euskalduna jauregiko auditoriuma astelehen eta martitzeneko emanaldietan. "Ederra" dela esan dute ume eta nagusi askok.

(...) Itzela da muntaia. Erakargarria da musika, baina ikusgarria da ikusteko ere: 114 pertsona agertokian -abeslariak, dantzariak..., eta 150 pertsonatik gora produkzioan. Jose Luiz Raymond arguratu da espazio eszenikoaz. Deigarriak dira atrezzoak eta jantziak ere. Kolorez betetzen dute agertokia. (...) Aukerakoak dira fantasiaren munduan sartzen laguntzeko.

Musikak ere indarra ematen dio irudimenari. Obraren bihotza da. Bidelagun aparta kontakizunetan bidaiatzeko. Lan handia egin dute moldaketa instrumentala egiteko.

(...) Abestu, antzeztu, dantzan egin... Denetarik egiten dute fantasiako kontakizuna interpretatzeko. (...) Hainbat sentimendu eta egoera. Maitasuna elkartasuna, bakardadea... Metaforaz betetako istorioa da.

IZASKUN BASTERRETxea / 'Berria'

"Merezi izan du, ikuskizuna bikaina da-eta; askotan hunkigarria ere bai"

Bergarako Orfeoiak gainditu egin du bere muga eta aurreko musikaletan erakutsitakoa hobetu egin du. *Seussen mundua* da antzeztu duen ikuskizunik onena. Hori bai Orfeoiak inoizko produktiorik garestiena izan du, ekoizpen-erakunde profesional baten eskutik, eta sekula baino baliabide gehiago. Estreinaldia ere egin zitekeen aretorik onenean egin dute.

Hori igarri egiten da eta emaitza ikusgarria da, une hunkigarri, barregarri, sinpatiko eta zirraragarri askorekin. Musikalak bi ordu irauten badu ere ez da luze egin.

Abiapuntua ezin hobea da: *Seussical* musikalak, Broadwayko ospetsu eta entzutetsuenetakoa. Partiturak musika estilo ugari nahasten ditu eta gaur egungo pop kulturaz ziprirtinduta gaudenontzako lehen entzunaldian sartzen da.

Zorionak eman beharko dizkiogu, hortaz, euskarazko musikal hau aurrera ateratzeko azken bi urteotan lanean jardun duten lagunei.

ENKO AZKARATE / 'Asteleheneko Goienkaria'

ORMAZABAL
FISIOTERAPIA ZENTROA

Bizkarreko mina • Bihurrituak
Tendinitisa • Masajeak • Erreuma
Etxeetara fisioterapia
Errehabilitazioa

Telleria 6 bis, 11 bulegoa
Labegaraia ind. BERGARA
Tel.: 943 76 53 35 / 626 90 06 08
ormazabalfisioterapia@yahoo.es

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

MINGAINARITIRAKA



**Borja
Diaz de Lezea**

UDALTZAINA

Tolosarra, Alegian bizi dena eta Bergaran lanean diharduena. Horixe da Borja Diaz de Lezea, Bergarako Udaleko udaltzainetako bat. Bi urtetik gora daramatza lan horretan; aurretik Tolosan eta Arrasaten ere lan horretan jardun zuen.

- N-1 errepidea ondo baino hobeto ezagutuko duzu, ezta? Bai, horixe; eguerdietan egoten da trafiko handien, baina gainerakoan, niretako ez da arazoa automobilean ibili beharra. Pazientziarekin hartu beharra dago.
- Neguko goizetan trafikoa zuzentzen ikusten zaituztedanean, pena pixka bat ere ematen didazue. Baina hori gure lanaren parte bat da, besterik gabe. Saihesbidekoa da txarrena, baina ez eguraldi txarragatik, arriskuagatik baizik. Isunen koadernotxoarekin zaudetenean, berriz, batere penarik ez diguzue ematen.
- Inori ez zaio gustatzen isunak jartzea, baina jarri behar direnean jarri egin behar dira. Dena dela, Bergaran oso gutxi jartzen ditugu. Udaltzain baten ikuspuntutik, zein da herriko arazo larriena gaur egun? Aparkaleku falta.
- Zeure burua uniformearekin ikustea gustuko duzu? Ohituta nago. Hasieran oso arraro sentitzen nintzen, eta txapel gorria janzteak lotsa pixka bat ere ematen zidan.
- Aldatzekotan, zertan lan egin nahiko zenuke? Argazkilaritzan; zaletasun handia daukat.
- Zer da zure lanean gehien gustatzen zaizuna? Klean ibiltzea eta jendeari laguntzea.
- Eta gutxien? Jendeari haserreren bat edukitzea.
- Denbora librean, zer egitea gustatzen zaizu? Lagunekin, emaztearekin eta semearekin egotea.
- Zerk amorratzen zaitu? Munduan zehar ikusten diren egoerek, injustiziek.
- Eta zerk pozten? Albiste onak; ez dira, baina, askorik izaten.
- Bukatzeo, amets bat? Hiesarendako, minbiziarendako eta beste hainbat gaixotasunendako sendagaia aurkitu dutela ikusi nahi nuke.

AINZANE IRIZAR

BERGARARRAKMUNDUAN

AINHOA UNAMUNO

32 URTE / IRAKASLEA / VALENTZIA

“Euskara irakasle izateak euskara maila ez galtzeko aukera paregabea ematen dit”

AINZANE IRIZAR

Hamar urte daramatza Ainhoak Euskal Herri-
tik kanpora bizi izaten. Aurretik Donostiara joan zen, ikasketak zirela eta. Psikologiako ikasketei ekin zien hantxe; hiru urtez bizi izan zen Donostian. Ikasketen azkeneko bi urteak, baina, Granadan egin zituen.

Granadatik Valentziara joan zen, kasu honetan ere ikasketekin jarraituz. Doktore ikastaroak egitera joan zen hara eta hantxe geratu zen; zortzi bat urte daramatza hantxe bizi izaten. Psikologoa izanik, emakumearen eta generoen gaineko ikastaroak egin zituen Valentzian.

“Harrezkero hamaika lanbidetan jardun dut, lan mota asko egin izan dut”, azaldu digu Ainhoak. Gaur egun, berriz, irakasle dabil lanean, unibertsitatean.

EUSKARA IRAKASTEN VALENTZIAN

Hiru hilabete daramatza unibertsitatean, Filologia Fakultatean euskara eskolak ematen: “Lagun batek esan zidan euska-

“Askotan pentsatu izan dut Euskal Herrira lan bila eta bizi izatera itzultzea”

ra irakasle bila zebiltzala unibertsitatean; aurkeztu egin nintzen eta hartu egin ninduten”, azaldu digu. Hogeitik gora ikasle dituen eta oso gustura dabil.

Hortaz, badirudi Valentzia alde horretan ere badagoela jakinmina euskararekiko.

Ainhoari berari ere oso ondo etortzen zaio euskararekin lan egitea: “Urte asko daramatzat Euskal Herri-
tik kanpo bizi izaten, eta asko irakurtzen dudan arren, hitz egiteko aukera gutxi izaten dut normalean”, diosku. Orain, berriz, irakasle denez, euskaraz irakurri zein berba egiteko aukera paregabea dauka. Ez da, gainera, Valentzian euska-

raz lan egin duen lehen aldia: “Lehen teleoperadore ibili nintzen, euskaraz orduan ere”, gogoratzen du Ainhoak. Badirudi, beraz, euskaraz lana topatzeko aukera ematen duela Valentzia aldean ere!

Berak euskara irakatsi bai, baina ikasi ote du valentziera? “Bada, bai; hitz egiten baino ulertzen eta irakurtzen hobeto moldatzen naiz; izan ere, gaztelera, italiara eta valentziera, denak nahastu egiten ditut batzuetan. Dena dela, valentzieraz berba egiten duten lagunekin nahiko ondo moldatzen naiz”.

ALDE ONAK ETA TXARRAK

Urte dezente daramatza Ainhoak Valentzian, eta hango bizimodura guztiz moldatuta dago. Dena dela, zera esan digu: “Valentzia hiriburuko auzo baten bizi naiz; Valentziak, hiri guztiek bezala, baditu bere gauza onak eta bere gauza txarrak. Aisialdirako, esaterako, aukera zabala eskaintzen dizu hiriak; asko gustatzen zait antzerkera, musika emanaldietara eta horrelakoetara joatea”, adierazi digu. Baina, hiriarren alde txarrak ere nabarmendu dizkigu: “Joan-etorrietan denbora asko galtzen dut; espekulazio handia dago eta alkatea ez zait batere gustatzen”, horrelaxe azaldu digu Valentzian gustatzen ez zaizkion gauzak.

Etorkizunaren gainean ere berba egin dugu Ainhoarekin; ez dauka batere garbi zer egingo duen, hori denborak esango duela adierazi digu: “Hasieran Valentzian bizi izatea behin-behineko zerbitu zen; orain nire egoera egonkorragoa da. Hala ere, askotan pentsatu izan dut Euskal Herrira itzultzea. Denborarekin, ikusiko dut zer egin. Gainera, orain oso pozik nago irakasle lan berriarekin, eta oraingoz, behintzat, hementxe jarraituko dut”.

“Aurrerantzean sarriago joateko aukera izango dut, irakasleen lan egutegia ona da eta. Gabonetan ere egon nintzen etxean”, adierazi digu.



OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13



ekar^m

Orain, elkar txartel berriarekin:

- %5eko deskontua liburuetan
- %10eko deskontua euskarazko musikan
- Erosketa bakoitzarekin puntuak zureganatzeko aukera
- Ikusentzunezko eta jokoetan promozioak
- eta askoz gehiago...


Zatoz eta **doan** atera.

elkar megadenda Bergaran
Ibargarai, 12 - Tel.: 943 764 050

BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA
GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA

BONOFOTOA

XVIII. mendean Aingeru Goardakoaren Santutxuaren gainean eraiki zuten ermitaren arrastoak ageri dira Mintegi kalean. Zein da ermita horren izena?



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MARIA ASUN BERRIOTXOarendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maria Asun!
Galderaren erantzun zuzena: **Bizi Nai elkarte**.



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO** BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Casa Alicia esparragoak

6-9 ale, 345 g-ko ontzia.

1€

167 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

OÑATI
Lurdesera egindako bidaia

Lurdesen atera zuten argazki hau 1954. urtean, duela mende erdi baino gehiago. 52 urte egingo ditu aurten, baina argazkian agertzen direnako batzuk ondo oroitzen dira irteera hartaz. Erretratuan agertzen diren guztien izena ez dakigu, baina bai gehienena.

Beheko ilaratik hasita, makurtuta daudenak: Karmen Korkostegi, Angelita Markuleta, Rosario Uriarte, Enkarna Maiztegi, Sabina Elortza, Ana Mari Urrestarazu eta Karmen Agirrebengoa.

Bigarren ilaran: Saturnina Agirre, Martzelina Biain, Mikaela Elortza, ezezaguna, Dolores Igartua, Angelita Korkostegi, Rosario Madinabeitia, Maria Luisa Korkostegi, Pilar Arrue, Arant-



xa Galartza, Isidora Billar eta Karmen Lizarralde.

Hirugarren ilaran: Biain, Sotera Alustiza, Felisa Igartua, ezezaguna, Eusebia Aldanondo eta Mari Tere Bengoa.

Argazkia: Angelita Markuleta

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Izizar jauregia, Barrenkalea 33), Elgetako kultura etxera edo Oñatiko Laixanera. Zain gaituztu!

FARMAZIENTXANDA

- EGUBAKOITZA, 13**
MOZOS. Iparragirre 2 943 76 12 15
- ZAPATUA, 14**
CAMACHO. Oxirondo 4 943 76 11 74
- DOMEKA, 15**
CAMACHO. Oxirondo 4 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 16**
ZABALA. Barrenkalea 25 943 76 16 87
- MARTITZENA, 17**
GUALLAR. San Antonio 5 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 18**
ESTELLA. Matxiategi 5 943 76 19 63
- EGUENA, 19**
MOZOS. Iparragirre 2 943 76 12 15

TELEFONOAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRIAOK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroledegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73


MEZAK

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.


URBANOAK

- San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.
- GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildiki okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraleta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraleta/Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik),
17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00
eta 20:40.
- GERALEKUAK: Labegaraleta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoila (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.


ATREBENTZIAEZPADA/ Sumatu duzu tabakoaren legearen eraginik zure inguruan?



EDORTA MURUA



JOSE RAMON AIASTUI



ANTONIO RETES



MARIAJE BIKUÑA



MARIA ROSA AGIRRE



PILI TELLERiarTE

Oraindik askorik ez. Lantokian, esaterako, legea ez da aplikatu, jendeak oraindik jarraitu egiten du erretzen. Nik neuk orain dela gutxi utzi diot erretzeari; aurrez pentsatua nuen, eta legearena aprobetxatu dut.

Uste dut orain gutxiago erretzen dela. Lehengo egunean telebistaz pilota partidua ikusi nuen, eta lehen puru handiarekin ikusten nuen jendea erre gabe egoten. Ni ez naiz erretzailea, eta niretzat abantaila da.

Bai, lantokian erretzea erabat debekatu dute, eta lantokide askok erretzeari utzi diote. Erretzaileek, berriz, ahal duten moduak aurkitzen dituzte zigarrotxoa erretzeko. Etxean, berriz, andreak erretzen du.

Ez dut uste eraginik izan duenik lege berriak. Ni neuk gutxi ibiltzen naiz tabernetan, baina berdin-berdin erretzen jarraitzen dutela entzun dut. Legearengatik ez zait iruditzen jendeak erretzeari lagako dionik.

Ez. Ezagutzen dut erretzeari utzi nahi dionik, baina ez legearengatik espresuki. Tabernetan ez dut inolako aldaketarik sumatu. Lantokian, eskola batean lan egiten dugunez, lehen ere debekatuta zegoen erretzea.

Gehienei entzun diet berdin-berdin jarraituko dutela erretzen; agian, amorrurik handiagoarekin, gainera. Tabernetan ere gehienetan erre daiteke. Lantokietan, beharbada, igarriko da gehiago.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZAKARRAK Jendeak zabor poltsak leku ezegokian lagatzen dituela eta, kexa azaldu digu irakurle batek: "Bideberriko apartokalekuaren erdian dagoen plastikozko hiruki berdea barrutik hutsa dela aprobetxatuz, jendeak zabor poltsak botatzen ditu bertan. Zabor edukiontzia egonda, zikinkeria da hori egitea", esan digu. /I.A.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Ziburu"



Kolonpixo esaten hasita dago gaurko haur eta guraso asko. — Aitta, guazen ziburuan ibiltzera.

JON IRAEGI

BESTE EKESANA

“ Inguruan ez nuen bertsolaria edo bertsozalea zen inor, eta uste dut berez bertsozalea nintzela.

Dozena erdi bat urte nituenerako Osintxuko festetan aritzen ziren Basarri eta Uztapide, eta ni aitarekin bertsoak entzutera joaten nintzen. Horretaz gain, bazen aitona alargun bat, Egileor bertsolariaren osaba, buzur milaka bertso zekizkiena eta inoiz tabernetan kantatzen zituena; ni adi-adi egoten nintzen entzuten. Baina gainerakoan ez zen bertso girorik Osintxun. Jaietan Bergarara joaten ginenean, dantza izaten zelako han, baina oraingo aldean ergara asko egiten zen orduan Bergaran, hamarretik bederatzira”.

JOSE LUIS GORROTXATEGI/ Bertsolaria 'Berria'/05-12-30

HAUGIROA!

MINIMOA 3 °C
Domeka, 8

MAXIMOA 12 °C
Martitzena, 10

ASTEKO EURIA (l/m²) 33,3 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 4	9 °C	5 °C	19,8 l/m ²
Eguena, 5	9 °C	7 °C	4,7 l/m ²
Egubakoitza, 6	9 °C	4 °C	— l/m ²
Zapatua, 7	10 °C	5 °C	0,4 l/m ²
Domeka, 8	12 °C	6 °C	1,8 l/m ²
Astelehena, 9	8 °C	7 °C	6,6 l/m ²
Martitzena, 10	11 °C	3 °C	— l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

BERAIEK DINOGE/ Andres Osa Sakona



Arazoa eta sintoma

Urtearen amaieran Joseba Azkarraga jaunaren aurrean Alec Reid apaiz katolikoak eta Harold Good artzai protestanteak, Irlandako bake prozesuan bitartekaritza egin dutenak hain zuzen ere, zera esan zuten: "ETA arazoaren sintoma da, ez arazoa bera" eta gomendioa eman ziguten tentuz ibiltzeko adierazpenetan ETA ez dela arazoa printzipala eta.

Adierazpen hauek arnas estua sortarazi zieten zenbait politikori. Erakunde armatua sintoma bada benetako arazoak egon behar du ba nonbait? Honi erantzun behar zaio eta ez norberari komeni zaion trajea egiten jardun.

Sintomak gaixotasunaren iratzargailu izaten dira, eta gorputzean zorro-zorro aberia handia sor ez dadin sintomaz baliatzen gara gaitzaren sorburua zer den jakiteko eta hartu behar diren neurriak hartzeko. Buruko mina

dugunean aspirina hartzea ondo dago, baina mina zerk sortzen duen jakin behar da. Aspirinaren efektua galtzen denean lehenean edo txarrago gaude. Gainera, aspalditxoan buruko min handirik ere ez dago, eramangarria egiten baitute.

"ETA sintoma bada, has gaitzen arazoa auskultatzen eta problemak mahai gainean behingoz ipintzen"

Gure artean politiko asko daude bakea berba hitzetik hortzera darabiltenak. Bake prozesua ireki behar dela esanaz denbora pasatzen ari dira. ETA sintoma bada, has gaitzen arazoa auskultatzen eta problema horiek

mahai gainean behingoz ipintzen. Batzuen ustetan, uste interesatua gehienetan, sintoma desagertzea da eman behar den lehen urratsa eta gero askatasunean hitz egin. Atzo goizean jaiotakoak bagina, tira! Sintomak baztertu, makur erazi eta arazoak ustelkor bihurtu edo gutxienez deskafeinatu tamalez hori da askoren intentzioa maltzurra. Esaten dugunaren lekuko Estatut delakoa izango da.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegia
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberebizar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
8.680 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2006ko Urtarrilaren 13a / 33. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Ibarreko urbanizazio lanak hastear daude, eta hiru hilabete iraungo dute

AINZANE IRIZAR

Azaroan esleitu zizkion Udalak Pera eraikuntza enpresari Ibarre auzoa urbanizatzeko lanak. Abendu erdialdera hasi ziren lanekin, lurra mugitzen, baina, eguraldi txarragatik bertan behera laga zituzten. Orain, berriz, segituan hastear daude lanak.

Egun batzuk barru Ibarre auzoa urbanizatzeko lanekin hasia espero dute Udaleko arduradunek. Abendu erdialdera lurra hondeatzeko makinak lanean hasi ziren dagoeneko, baina, eguraldiak oztopo handiak sortu zizkietenez, bertan behera geratu ziren lanak.

Proiektuaren helburu nagusia da auzoari espazioa ematea. Batetik, eremu berria zabalagoa izango da; bestetik, 24 aparkaleku, umeendako jolasteko gunea eta zona berdea jarriko dituzte.

BUZTINZURIKO LANAK AMAITZEAR

Buztinzuri kaleko urbanizazio lanak, berriz, egun batzuk barru amaituko ditu Pera enpresak. Orduantxe hasiko dituzte Ibarreko lanak; izan ere, enpresa berak egingo ditu.



Buztinzuriko lanak egun gutxi barru bukatzea espero dute; orduan hasiko dituzte Ibarreko urbanizazio lanak.

Azarotik itxita egon da Buztinzuri kalea; egunotan, lurzoru berria jartzeko azken ukituekin dabilta.

Buztinzuriko urbanizazio lanekin lotuta, behin baino gehiagotan entzun dugu Herri Ikas-

tetxearen kontratik Sagastira doan bidearen noranzkoa aldatuko ote duten. Azkenean, baina, badirudi dagoenetan lagako dutela, hau da, Sagasti auzotik Buztinzuri kalera jaitsi ahal izango dira automobilak, baina, gora

ezin izango dugu automobileraz igo. Hiru aukera aztertu dituzte: dagoenetan lagatzea, behetik gorako noranzkoa jartzea edo noranzko bikoitza ezartzea. Azkenean, hortaz, orain arte bezala jarraitu beharko dugu.



Ongi Etorri ere itxi egin dute

Iaz, 2005ean, Antzuolan itxi zuten bigarren taberna-jatetxea izan genuen Ongi Etorri. 33 urtez egon da zabalik, 1972ko abenduaren 27an Sabina Barquerok eta Isidoro Quintanak zabaldu zutenetik. Penaz, baina, itxi egin behar izan dute, jarraituko duen inor ez dagoela eta.

Iazko ekainean, berriz, Aitz-Garbi itxi zuten. Berri on bat ere izan dugu, hala ere; Arin taberna zabaldu egin dute. Urrian zabaldu zuen nagusi berri batek, Tere Sanchezek, hain zuzen ere./A. I.

LABUR

Bizigune programa ezartzeko akordioa sinatu dute

Atzo, eguena, sinatzekoak ziren Bizigune programa martxan jartzeko akordioa. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Saileko sailburu Jabier Madrazok eta Jose Angel Zabalo alkateak sinatu zuten akordioa. Beste hainbat kontu bezala, Suradesa elkarteak kudeatuko du Bizigune, Udalaren izenean.

Sahararako produktuak batzen dihardute herrian

Saharara bidaltzeko hainbat produktu batzen dihardute herrian, Anelkarrek, Udalak eta Herri Ikastetxeak. Kompresak, atuna eta azukrea, hain zuzen ere, batuko dute hilaren 20ra arte. Eskolan, Eroskin edo Kalebarren dendan (lehenengo Juanitanean) laga behar dira produktuak.

Suradesako teknikaria astelehenetan

Etxebizitzak konpontzeko laguntzen eta Bizigune programaren gaineko informazioa eskaintzen duen Suradesako teknikariak egutegi eta ordutegi berriak dauzka urte berriarekin batera. Aurrerantzean astelehenetan etorriko da udaletxera, 10:30etik 11:30era.

Toponimiaren gaineko liburua eskuartean dute

Antzuola Herria bekari eskertu Kristina Pavok egindako azterketaren emaitza da herriko toponimiaren gaineko liburua. Udaleko arduradunek eskuartean dute dagoeneko liburu hori, baina, oraindik ez dute zehaztu aurkezpeneko eguna; datozen asteetan aurkeztuko dute.

TXIRRINDULARITZA

Gurutz Larreak amateur mailan jardungo du denboraldi berrian

AINZANE IRIZAR

Iazko denboraldian, gazte mailan, oso ondo ibili zen Gurutz Larrea txirrindulari antzuolarra. Aurten, berriz, amateur mailara igaro da eta Azpiru taldearekin sinatu du. Hogeita hiru urtez azpikoen mailan jardungo du, Lehendakari Txapelketan, bereziki.

Azaroan ekin zion Gurutzek denboraldi berria prestatzeari; aurreko asteburuan, berriz, Azpiru taldearekin lehendabiziko entrenamendua egin zuen, Urnietan.

Jon Bikendi eta Iker Amutxastegi izango ditu talde berriko zuzendariak; taldekide, berriz, bergarar bat izango du: Unai Arantzabal, hain justu. Iaz berekin junior mailan ibilitako hainbat txirrindulari ere bai: Joseba Iziar, Ander Nafarrate, Gorka Izagirre eta Jon Urteaga, esaterako. Guztira, 18 bat lagunekoko taldea osatuko dute.

Etor Mendia lazkaotarra arduratuko da Gurutzen prestakuntzaz; iaz ere berak prestatu zuen antzuolarra.



Azpiru taldearekin jardungo du Gurutzek aurten, amateur mailan.

KONTUOLA

IAZ BIKAIN IBILI ZEN

Iaz denboraldi borobila egin zuen; besteak beste, junior mailako Euskadiko txapelketa eta Gipuz-

koako Erlojuaren Kontrakoa irabazi zituen. Lasterketa gehiengant, gainera, lehenengo hamar bat postuetan sailkatzen zen.

FUTBOLA

Ondo ekin diote bi taldeek urte berriari

AINZANE IRIZAR

Antzuola Kirol Elkarteko bi taldeek garaipen banarekin ekin diote urte berriari. Gabon jailetako atseden astean ondoren, aurreko asteburuan partidua izan zuten bi taldeek.

Erregional mailako taldeak kanpoan jokatu zuen, Zestoan, hain zuzen ere. 0-2 irabazi zuen, eta Aitor Godoyk sartu zituen bi golak. Horren ondorioz, lidertzari eusten diote antzuolarrek

euren multzoan. Aretxabaleta dago bigarren postuan, eta aurreko asteburuan berdindu egin zuenez, orain hiru puntu gutxiagorekin dago sailkapeneko zerrendan.

GAZTEAK ERE ONDO

Gazteek ere zorte eta joko onarekin hasi dute urte berria. Hernaniko Texas taldearen bisita izan zuten eta 3-1 gainditu zituzten. Horrela, azkeneko postuetatik aldentzen doaz.



Jose Luis Sestok zuzentzen duen taldeak lehen postuan jarraitzen du.

A.I.

HERRITARREN HITZA / Patxi Olabarria · Langilea

Ba al zenekien?

Ba al zenekien Antzuola herri euskalduna izan arren mediku erdalduna duela? Ba al zenekien Antzuola herri abertzalea izan arren egunkari espainola saltzen dela gehien? Ba al zenekien El Diario Vasco eta ABC enpresa talde berekoak direla?

Ba al zenekien Antzuolako bi presoak bisitatzeko astero 1.700 kilometro baino gehiago egin behar direla? Ba al zenekien Aiherrako preso bisitatzeko 1.000 kilometrotik gora egin behar dituztela?

Ba al zenekien Antzuolako Udala antidemokratikoa dela?

Ba al zenekien 427 antzuolarren botoa bahitua izan dela? Ba al zenekien udal plenoak goizeko 8etan izaten direla? Ba al zenekien Gertu Gaeko zinegotziak baztertuta gaudela? Ba al zenekien udal plenoetan galderak egiteko 48 ordu lehenago alkateari baimena eskatu behar zaiola? Ba al zenekien egoera antidemokratikoa hau aldatzeko PNV-EAK



"Ba al zenekien PNV-EAK 'garapen sostengarriaz' hitz egiten duela?"

ezertxo ere egiten ez duela? Ba al zenekien Apartheid egoera hau salatzen duten kartel eta pankartak jarri eta egun gutxira alkatearen aginduz kendu egiten direla?

Ba al zenekien Antzuolatik Bergararako betiko bidea ia 3 urtean itxita dagoela? Ba al zenekien gutxienez udazkenara arte

itxita jarraituko duela? Ba al zenekien herrirako beheko sa-

rrera Uzarragarako zubitik izango dela? Ba al zenekien Bergararik Eguzki Auzora joateko Kalebarrengo zubia pasatu beharko dela? Ba al zenekien Abiadura Handiko Trenak herria txikituko duela? Ba al zenekien Herriko Plazan erreka zabalduta ez dugula Herriko Plazarik izango? Ba al zenekien Kultura Etxea Sagastin eginda ez dugula parkerik izango? Ba al zenekien PNV-EAK "garapen sostengarriaz" hitz egiten duela? Ba al zenekien egoera ilun hau ez dela argitzen Gabonetako argietan milaka euro gastatuz?

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Urtarrilak 14

16:00: Antzuola-Urki (Erregionalak)

PILOTA

Udaberri Saria jokatzeko hasiko dira laster Olalde elkarte pilotariak, baina, oraindik ez digute egutegirik eman.

EMAITZAK

FUTBOLA

Zestoa 0 Antzuola 2 (Erregionalak)

Antzuola 3 Texas 1 (Gazteak)

PILOTA

Gabon jaietan ez dute partidurik jokatu Olaldekoek.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta
industriarako pinturak
Paper margotuak
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta
gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatua
eta
bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2006ko Urtarrilaren 13a / 252. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Hiru baserri-bide Udalarenak izatea eskatu diote Aldundiari

IRATI AGIRREAZALDEGI

Elgetako baserri-bide gehienak Udalarenak badira ere, hiru Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku daude. Hala, Udalak eskaria egin dio Foru Aldundiari bide hauek Udalaren eskutara pasatzeko. Bestalde, baserri-bideen erabilerara arautzeko proposamena ere egitekotan dira.

Larragibel, Egoetxeaga eta Arantzeta Zeharra auzoetako bideak Gipuzkoako Foru Aldundiarenak dira gaur egun. Eurena da bideok modu egokian mantendu eta zaintzeko ardura ere. Udalak nahi du baserri-bide hauen titularrak bera izatea, eta hori eskatu dio, hain zuzen ere, Aldundiari.

Bideen eskuduntza Udalaripasa aurretik, ordea, Foru Aldundiak berak konpondu egin beharke lituzke. Baserri-bideetan aglomeratua botako lukete, eta honela, gutxi gorabehera 15 urterako modu egokian mantenduko lirake bideak. Udalaren asmoa da hitzarmena lehenbailehen egitea eta bideak ahalik eta denbora tarte laburrenean konpontzea.



IBAN ARANTZABAL

Besteak beste Larragibel auzora doan bidea bereganatu nahi du Udalak.

PINUAK

Bestalde, pinudien jabeek pinuak ateratzen dituztenean, baserri-bideak erabiltzeagatik ordaindu ohi duten fidantza aldatzeko

asmoa azaldu zuten azken Baserriarren batzordean.

Kamioiak igarotzeagatik tasa bat ordaindu behar dute pinudien jabeek. 1990ean jarri zituzten zen-

batekoak eta horren arabera kamioi bakoitzak kilometroko eta bidaiako sei euro ordaindu behar ditu.

Honetaz gain, beste horrenbesteko fidantza ordaintzea dago jabeek. Fidantza hau erabiliko da kamioiek kalteak eraginez gero (lurra bota eta arekak zikindu, bideak zulatu...) konponketak egiteko.

ORDENANTZETAN ALDAKETAK

Kontuan hartuta batzuetan fidantza hori ez dela nahikoa izaten kalteak konpontzeko, Baserriarren batzordean proposatu dute gutxieneko kopuru bat zehaztea. Hain zuzen, kopuru hori 600 euro izatea da proposamena.

Hala ere, gai honen gaineko udal ordenantza zaharra denez, gainbegiratu egin dute, baita beste herri batzuetakoak aztertu ere. Azterketaren ostean, erabaki dute aldatzeko egitea eta hurrengo Baserriarren batzordean aurkeztea.

Iaz, esaterako, Udalak 82.503 euro gastatu zituen baserri-bideak konpontzen; lanak oraindik amaitzeke daude.

LABUR

Ardoaren gaineko ikastaroa hilaren 18an KZgunean

Hilaren 18an aurtengo lehen ikastaroa izango da KZgunean. Ezagutu ezazu ardoaren izenburupean, ordenagailuekin bitarteko saioa egingo dute ikastaroan izena ematen dutenek. KZgunea astelehenetik barikura bitartean egoten da zabalik 16:30etik 20:00etara. Irakaslea, berriz, ikastaroko egunean 09:00etatik 13:00etara bitartean egongo da zalanetik argitzeko.

Gazte lokalerako begiralea behar du Udalak

Udalak begiralea behar du gazte lokalaren ardura hartzeko. 11 eta 16 urte bitarteko gazteendako egongo da lokala zabalik asteburuetan. Begiraleari esperientzia izatea, euskaraz jakitea eta 18 urtetik gorakoa izatea eskatuko zaio. Lan kontratua urtarrietik maiatzera bitartekoa izango da. Interesatuak udaltxerara jo behar dute.

KIROLA

Gabonetako Umeen Pilota Txapelketan, 28 neska-mutikok jokatu dute Uberako frontoian

I.A.

Herriko pilotalekua obretan bada ere, urteroko ohiturari jarraituz Umeen Pilota Txapelketa egin zuten Gabonetan.

Kirola sustatzeko taldeak eta Ozkarbi Pilota Elkartek antolatu zuten txapelketa. Abenduaren 28an, 30ean eta 31n jokatu zituzten partiduak 28 umek Uberako pilotalekuan.

Bost mailatan jokatu ziren partiduak eta finalen ostean Iñaki Ugarteburu Kirol batzordeko zinegotziak, Patxi Basauri alkatetik eta Jose Mari Zezeaga pilo-

tariak banatu zituzten sariak. Irabazleek garaikurra jaso zuten eta gainontzeko parte-hartzaileek kamiseta eta domina bana.

Juan Luis Ubera antolatzaileak esan digunez, "frontoian obretan daudenez, neska-mutiko gutxiago dabil pilotan, eta hori txapelketan ere sumatu dugu.

BI TXAPELKETA HASTEAREN

Bestalde, Ozkarbiko pilotariak bi txapelketatan hartuko dute parte: Udaberri sarian eta Euskal Ligan. Lehen partiduak bihar, zapatua, jokatu dituzte Eskoriatzako pilotalekuan.



IÑAKI UGARTEBURU

Etor Telleriak gogoz jokatu arren, ez zuen finalerako txartelik eskuratu.

FINALETAKO EMAITZAK

AURRE BENJAMIN MAILA

• Neskak:
Jone Elkoro 16/Ane Ugarteburu 14

• Mutilak:
Etor Zubiaurre 16 / Unai Andres 8

BENJAMIN MAILA

• Neskak:
Ibane Zubiaurre 16 / Uxue Larrea 7

• Mutilak:
Jon Ugarteburu 16 / Josu Mañarikua 5

ALEBIN MAILA

• Maitena Mañarikua 16/Iñaki 5

INFANTIL MAILA

• Iñaki Olaortua 18/Mikel Beretxinaga 12

KADETE MAILA

• Odei Zenitagoia 18/
Mikel Agirregomezkorta 12

HEZKUNTZA

Haurreskola lekuz aldatu artean, aurrez hitzartu baino ume gehiago onartuko dituzte

I.A.
Hainbat gurasok haurreskolaren gainean azaldutako kezka sumatuta, lanean jardun dute Aralarkoek eta behin-behineko irtenbidea aurkitu diote arazoari. Haurreskola lekuz aldatu bitartean muga gaitu arren, onartu egingo dituzte umeak.

Herriko zenbait guraso kezkatuta zeuden umeak haurreskolan lekurik gabe geratzeko arriskuan zeudela uste zutelako. Elgetako haurreskolan hamar umerendako lekua dago, eta oraingo lau plaza baino ez dauka libre.


Arazo honi irtenbidea aurkitzeko lanean jardun dute Aralarkoek: "Hasieratik apustua egin genuen haurreskolaren alde, garbi baitugu herriko umeak ezin

direla kalean geratu, eta familia eta lan mundua uzartzeko ahalguz berezia egin behar dela".

HIRU UMEREN GORABEHERA

Egindako lanak eta Haurreskolak partzuergoko arduradunekin izandako elkarrizketek eman dute fruitua. Aralarkoek eskatu zuten haurreskolak hamar umerendako tokia izan arren malgutasunez jokatzeko; hau da, bi edo hiru umeren gorabehera onartzeko. Partzuergokoek ontzat hartu dute neurria; eta haurreskola Torrealdean kokatu bitartean ume gehiago sartu ahal izango dira Maalako gelan. Hala ere, argi utzi dute espazio baldintza egokiak bete ezean leku aldaketa eskatuko dutela.

Oraingoz, beraz, gurasoek ez daukate kezkatzeko arrazoi sakinik, behin behineko irtenbidea bideratuta baitago.



Oraindik lau umerendako lekua dago haurreskolan.

ELIZA

Diru bilketa berezia egiten dihardute sakristiako teilatua konpondu ahal izateko

I.A.
Parrokiako sakristian obrak egin behar dituztela eta, asteburuan diru bilketa berezia egin zuten mezatan. Bestalde, kontu korrantea ere ireki dute Kutxan nahi duenak diru ekarpenak egin ditzan, obra hauen kostuari aurre egiteko.

Parrokiako sakristian teilaberitze-lanak egin nahi dituzte, eta lanok ordaintzeko eliztarren laguntza ezinbestekoa da.

Hori dela eta, diru bilketa egin dute asteburuan. Juan Kruz Juaristi apaizak esan digunez, "jende asko joan zen mezetara eta elizak egindako eskariari oso erantzun ona eman zioten. Gai-

nera, espero dugu aurrerantzean ere dirulaguntzak jasotzea". Horretarako, Kutxan 0105504443 zenbakidun kontua ireki dute, nahi duenak dirua sar dezan obra hauek egiten laguntzeko.

EGURREZKO EGITURA

Lanak udaberrian hasteko asmoa azaldu digu Juan Kruz Juaristik.

Oraingoz delako hamar urte inguru elizan berritze lanak egin zituzten, eta orain sakristiari iritsi zaio txanda. Teilatua berritzea izango da lan nagusia: "Egurrezko egitura denboraren poderioz hondatuz joan da, eta aldatu egingo dugu; beharbada teilak ere berriak ipiniko ditugu. Arrazoi nagusia itoginak saihestea da".



Ozkarbi elkarteko bazkideen batzarra urtarrilaren 18an

Ohiko data baino geroago, urtarrilaren 19an, egingo dute aurten Ozkarbiko bazkideek urteko bilera. Elkartean bertan izango da; lehen deialdia 20:00etarako egin dute eta bigarrena, 20:30erako. Gai garrantzitsuez berba egingo dutela eta, bazkide guztiei batzarrera joateko eskatu diete. Ohiko gaiez gain, baserritarrekin egindako tratua, erretiratu eta udalarekin izandako harremanak, kuota berriak, lehendakari berria aukeratzea eta tabakoaren legea izango dira hizketarako gaiak.

Iker Gonzalez 2006ko lehen debagoiendarra

Argazkian gurasoekin agertzen den mutikoa ia urte berriarekin batera, urtarrilaren 2an, jaio zen Arrasateko Eskualde Ospitalean. Iker Gonzalez Sanchez elgetarra da bera. 2006an jaio den lehen debagoiendarra da Iker, Cristina eta Juan Carlosen semea.

Bestalde, Elgetako parrokiari lau neska-mutiko bataiatu zituzten domekan: June Bolinaga, Lorea Gartzia, Aitana Zubeldia eta Pablo Egizabal, hain zuzen ere.

Elgetan, 2005ean 14 ume jaio ziren eta urtea hasi baino egin ez denean jadanik beste elgetar bat jaio da./I.A.



Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2006ko Urtarrilaren 13a / 33. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05

Hainbat proiektu ditu Udalak 2006rako

OIHANA ELORTZA

Udalak 2006rako duen asmoa da martxan dauden proiektuekin jarraitu eta berriak hasi, hala nola: Urrutxuko futbol zelaia, MUko campus berria eta herri sarrerako biribilgunea. Herriko hainbat eraikinek ere aurpegi berria izango dute urtea bukatu aurretik.

CUT proiektua otsailean edo martxoan inauguratzeko asmoa du Udalak. Horrekin batera, beste hainbat proiektu zehaztu eta martxan jarri gura ditu. Horien artean daude, besteak beste, Urrutxuko futbol zelai berria, herri sarreran egin gura duten biribilgunearen finantzaketa, ludotekaren tokia erabakitzea eta San Martin auzoko etxebizitzak egiten hastea. Horrez gain, plazako kioskoa berritu egin gura dute, eta San Martin egoitzak aurpegi berria izango du.

BESTELAKO EKINTZAK

Ekintza puntualak ere iragarri dituzte Oñatin 2006rako, hala nola: Mundumira jaialdia, Euskal Eskola Publikoaren jai eta Aita Madinaren urteurrena.



Inaugurazioak bultzada emango dio CUT proiektuari.

GOIENKARIA

2006KO AURREKONTUAK

Udalak 20 milioi pasako aurrekontu bateratua onartu zuen azaro bukaeran egindako osoko bilkuran, 2005erako baino %16 han-

diagoa. Horietatik 17 milioi pasatxo Udalak berak kudeatuko ditu. Hirigintzak, Idazkaritza eta Haziendak eta Kirol Sailak dute partida handienak.

2005eko azken Txanda saria

Maria Elizer Lauzurikak irabazi du Txanda dendari elkarrekin abenduan zozketatu duen saria: asteburu bat Euskal Herriko landetxe batean edo talasoterapia zentro batean. Aukeratu egin behar du orain saria.

Halako zazpi sari banatu ditu Txandak 2005ean erositak Txanda txartelarekin egiten zutenen artean. Eta 2006an ere sariak ematen jarraitu gura du. Txanda txartela egin gura duenak herriko dendetan edo Rural Kutxan du informazioa./O.E.



LABUR

Alzheimer gaixoen senideendako ikastaroa egingo dute datorren aste osoan

Alzheimer gaixoen senideei eta gerontologia arloko langileei dago zuzenduta *Dementia*, Alzheimer ikastaroa. Kultura etxean egingo dute hilaren 16tik 20ra eta izena eman behar da, plaza mugatuak dira-eta: 943 47 41 82 edo 665 71 86 95. Doan da ikastaroa.

Tranbiaren erakusketa hilaren 23a arte dago zabalik udaletxeko areto nagusian

Tranbiaren planoak eta proiektuaren inguruko datuak udaletxeko areto nagusian daude ikusgai urtarrilaren 23a arte. Debagoiena lotuko duen tranbia Oñatin nondik nora pasako den ikusten da planoetan. Alegazioak aurkezteko epea ere 23an amaitzen da.

Oñatiko aditzak dituen liburua atera dute, oñatiarrez idazterakoan erabiltzeko

Oñatiko Udal Euskaltegiko irakasleek egin dute liburua beste herri-tar batzuekin batera. Oñatiko aditzak daude liburuan, oñatiarrez idazterakoan erabiltzeko. Hikako formak ere jasotzen ditu. *Oñatiko Aditz-taulak* liburua Udal Euskaltegian eskura daiteke.

IZENEMATEA ZABALIK DAGO

Tailerrak egingo dituzte Gaztelekuan

O.E.

Hainbat tailer eta ikastaro antolatu dituzte Gaztelekuan urtarilerako eta otsailerako.

Lehenengo ikastaroa malabareak erabiltzen ikastekoa da. Urtarrilaren 28an eta 29an egingo dute. Otsailaren 4an eta 5ean perkusio ikastaroa egingo dute. 11n eta 12an larrugintza tailerra egingo dute eta 25ean eta 26an

dantza afrikarrak nola dantzatu ikasteko tailerra izango da.

Ikastaroetan izena emateko epea dagoeneko zabalik dago. Plazak mugatuak dira. Gehienez 20 laguneko taldeak egingo dituzte. Interesa duenak, Gazte Informazio bulegoan eman behar du izena aste barruan, 10:00etatik 13:00etara edota 17:00etatik 20:00etara. Telefonoz edo e-postaz ere egin daiteke.



Tailer hauen ostean gehiago antolatzeko asmoa ere badute Gaztelekuan.

GOIENKARIA

Mireia Alberdi DIETISTA



Helbide berria:
Masterreka 11 behea, BERGARA
943 76 33 99

- PISUA GALTZEKO DIETAK
- HEZIKETA NUTRIZIONALA
- HAURDUNALDIRAKO ELIKADURA
- KIROLARIENTZAKO DIETAK
- OSASUN ARAZOETARAKO AHOLKULARITZA:
(KOLESTEROL, DIABETES, HIPERTENTSIOA, AZIDO URIKOA)
- JARRAI PEN PERTSONALIZATUA
- IKASTAROAK...

(...) mireia alberdi
DIETISTA-NUTRIZIONISTA

(t) 943 763 399
(m) 646 433 458
(e) mireialber@euskalnet.net

Masterreka 11 behea • BERGARA



Udal Euskaltegira goaz. Bazatoz gurekin?



Mixel González Postaria	Bianca Daubagna Jauriaritzako langilea	David Arnalaz Ikaslea	Rosangela De Oliveira Zaharbertzalea	Magdalena Cuesta Erizaina	Jabier Lejarzegi Erretiratua	Paki Mendizabal Etxekoandrea	Cristina Rodríguez Langabea
----------------------------	---	--------------------------	---	------------------------------	---------------------------------	---------------------------------	--------------------------------

EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza: EUSKALDUNTZE maila guztiak ALFABETATZE, EGA, eta EGAtik gorakoa.

Multimedia gela (BOGA).

Egokitutako taldeak: guraso, merkatari, etorkin, enpresa, Bergarako euskara, etb.

Azterketak prestatzeko: EGA eta HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK. HABEren diplomak ateratzeko azterketa euskaltegian bertan.

Erritmoak: Eskarien arabera erritmoak. Galde ezazu!

Bulego ordutegia: 08:30-13:00 / 14:30-18:30.

Ostiraletan: 08:00-15:00

16 urtetik gorakoentzat

Bekatzeko sistema eta diru laguntzak ditugu

Matrikula zabalik Urtarrilaren 16tik 27ra

24 urte euskara irakasten
Maila guztiak
Ordutegi zabala
Bekak/ HABEren diplomak...

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Zabalotegi, 13 | 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net



www.udaleuskaltegiak.net

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman) Zurradero 6, behe. 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 609 54 16 13

IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA Isabel Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN Victor Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46

ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95

BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 36, behe. 943 76 05 77

GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

SAINZ Ana Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69

TRIPALDI Enrike Justo Garate 1. 943 76 70 76

DIETISTAK

ALBERDI Mireia Masterreka 11 behe, BERGARA. 943 76 33 99/ 646 43 34 58

FISIOTERAPEUTAK

ARZAK Miren (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

BASTERRETXEIA Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

UNZUETA Irene San Martin Osasundegia. Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

AZPEITIA Irupe Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43

CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

PODOLOGOAK

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84

AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

GALLASTEGI Pablo San Martin Plaza 2, 1-ekz. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

SAMADHI YOGA Masterreka 13, behe. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.